

Testua eta irudiak: **PAT HUTCHINS**

Itzulpena: **MANU LOPEZ GASENI**

Cartoné delakoan koadernatuta. 25,4x20,3 cm.

Koloretako 36 orrialde. Eskuragarri honako hauetan:

- Euskaraz: "Loreren Ibilaldia"
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-660-8
- Gaztaniaz: "El paseo de Rosalía"
Libros para Soñar. ISBN 978-84-92608-32-4
- Galegoz: "O paseo de Rosalía"
Tras os montes. ISBN 978-84-8464-747-8
- Katalanez: "L'Angelina surt a fer un tomb"
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-937469-9-5
- Portugesez: "O passeio da Dona Rosa"
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-51-3

Salneurria: 14 €

LOREREN IBILALDIA


**LIBURU NABARMENDUA (AMERIKAKO
LIBURUZAINEN ELKARTEA), 1968**

**Lore oiloa ibilaldi bat egitera joan zen
patioan zehar
urraelaren inguruan...**

"Loreren Ibilaldia" etengabe indarrean dagoen 1968ko klasiko bat da: marra soil eta tonu azidoko koloreen bidezko abangoardiako proposamen estetiko hau ikusizko eduki handiagatik nabarmentzen da. Testuan, berriz, kateatutako esaldi labur batzuk aurkituko ditugu, kontakizuna grafikoki osatzen duten irudi deskriptibo batzuekin batera. Hala, egitura zirkularreko irakurketa-maila bi erakusten ditu: Lore oiloaren ibilaldi lasaia eta, hura konturatu gabe, atzetik dabilkion azeriaren umorezko eta oztopoz betetako jazarpena.

PAT HUTCHINS (Ingalaterra, 1942)

Zazpi anai-arrebetatik seigarrena, Pat Hutchins zelaiez eta naturaz inguratuta hazi zen, gerora bere obran islatuko zuen giroa. Oso gaztetatik artista izan nahi izan zuen, inguruko zahar bikote batek marrazki bakoitzeko txokolate-barra bat oparitzen ziolarik. Herriko arte-eskola batean ikasi zuen hiru urtez, eta gero Leeds-eko Arte Akademiara joan zen ilustrazio espezializazioa egitera. Hasiera batean, bere obra Londres inguruko zirkuito artistikora mugatu zen, baina ezkondukoan New Yorken emandako denboraldi batez argitaldari batzuei bere obra arrakasta handiz erakusteko aukera izan zuen. Liburu hau (*Rosie's Walk* titulurekin) izan zen haurrentzat argitaratu zuen lehen albuma, Amerikako Liburuzainen Elkarrean (ALA) Liburu Nabarmendua izendatua 1986an. Geroztik, eleberri batzuk idatzi eta ilustraturiko liburu gehiago argitaratu zituen. Kate Greenaway Domina prestigiotsua eman zioten 1974an. Gaur egun Londresen bizi da.



- **Gaiak**: azeri batek baserri batean ibilaldian dabilen oilo bati egiten dio oztopoz betetako jazarpena
- **Gomendatutako adina**: oraindik irakurtzen ez dakitenak eta lehen irakurleak
- **Alderdi nabarmenak**: Amerikako Liburuzainen Elkarrean Liburu Nabarmendua izendatua (1968)
- **Zehar-lerroak**: baserria, abereak, koloreak, umorea, oztopo eta istripuak.